

II.—Altube'k oartxo batzuek dakarzki, Azkueren *Morfología vasca* bide dala.

III.—Azkue jaunak lan berri bat irakurri digu : Auxe bere azalkaia : *Conjugación del verbo guipuzkoano y del subdialecto de la frontera*. Lan au ere *Morfología*'ren zati beña da.

IV.—Euskaltzaindiak erabaki du : euskaltzaingotza Elissalde jaunari (Zerbitzari) eskaintzea. Eskeintz au Urkijo jaunak egin beza.

V.—Euskaltzaindiak nai luke Gavel jauna uréngo batzañaldietara etortzea, Aita Lhanderen ordez.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1930'ko Garagañaren 25'an.

Batzañaldi ontan euskaltzain jaun abek bildu dira; Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intzagarai, Lakonbe ta urgazletatik Lekuona eta Gabel jaunak. Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak esan digu Madrid'ko *Ministro de Instrucción* deitzen dan agintariarekin itz egin duela; oni aitortu dio zein egoki litzaken euskeraz erakustea mutiko euskaldunai beren lenbiziko ikasbi-deak. Ministroak entzun zion bañan geroztikako erantzunik ez degu izan.

II.—Euskaltzaindiak zorionak eman bear dizkio gure urgazle dan Saint Pierre Jean jaunari oraintxe Kartago'ko gotzain izendatu dutelako.

III.—Broussain zanaren eskutitz bat bide arturik, Azkue jaunak bere lantxo bat irakurri digu.

IV.—Ikastetxetarako bear diran euskal-liburutxoak batean biltzea, ta zer utsunetan ote gauden gai ontan jakitea oso on litzake : onetxen ardura egotzi zaie Intzagarai, Mujika ta Lekuona jaunai.

V.—Eguskitza jaunak bere lan bat irakurri digu. Azkuek bere Morfologian, 126 orian *-ti* atzizkitzaz auxe dasa. «Denota imperfección en el sujeto a quien se aplica el adjetivo así derivado. Es decir, que tiene cierto dejo peyorativo». Eguskitzak asaten dio txar-tzarako usai ori ezduela *rik* berez, baizik txar danari ezartzen zaionean baño.

VI.—Altube jaunak beste lan bat irakurri digu, atzizki *a*, *ok*, *ik* gai bidetzat arturik.

VII.—Azkue jaunak bere lan bat agertu digu: *Conjugación del verbo guipuzcoano y del subdialecto de la frontera* idazkuntzat darama. Beste gai batzuek biarko utzirik otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donostia'n, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1930'ke Garagañilaren 26'an.

Auruko batzaldian aitatzen diran euskaltzain berak bildu dira eta urgazletatik Ormaetxea eta Gabel. Otoitzez asi da.

I.—Iztegi-beñiaren lanetan jardun degu eta erderazko itz *cancionero* arteraño iritxi gera.

II.—Bähr jaunak bere eskutitz batez esaten digu agindu zaion lanaren itzulpena egingo duela.

III.—Azkue Jose Aitak eskeñak ematen dizkio Euskaltzaindiari urgazle izendatu duelako.

IV.—Eusko-Ikaskuntzak Bergarako Batzar nagusirako dei egiten dio Euskaltzaindiari. Onen izenez antxe izango da gure buru dan Azkue jauna.